

Praktikaldi Prozesuaren Hasierako Formakuntza
PRACTICUM I
GIZARTE HEZKUNTZA GRADUA

Practicuma funtsezko elementua da Gizarte Hezkuntzako Graduako ikasketa-planaren barruan. Unibertsitateko ikasketak lanbidera hurbiltzen saiatzen da, testuinguruan oinarritutako esperientzia praktikoa bat sustatuz. Practicumaren bidez, ikasleak hezkuntza eta gizarte errealitatera hurbiltzen dira eta errealitate horretan integratzen dira, ondoren beren lanbide-jarduna zer izango den behatuz, aztertuz eta hausnartuz. Practicumaren bidez, lanbidearen gaitasun profesionalak praktikan jartzeko aukera ere izango da.

Horrela, hasierako prestakuntza honek hausnarketa eta azterketa esparru bat errazten du, praktika profesionalak prestakuntza testuinguru akademiko batean murgiltzeko, hainbat eskaera profesionali aurre eginez, teoria, praktika eta hausnarketa bateratuz, eta Gizarte Hezkuntzaren inguruko diskurtsoak eraikitzen laguntzen duten diziplina desberdinekin loturak ezarri.

Practicum I delakoan honako gaitasun hauek lortzea espero da.

Gaitasun orokorrak

1. Gizarte Hezkuntzako testuinguruetan modu profesionalean esku hartzea, Gizarte Hezkuntzarekin lotutako diziplinen oinarri teoriko-praktikoetan oinarrituta, eta gako etikoak deontologia profesionala errespetatzea oinarri hartuta.
2. Beren hezkuntza-ekintzez arduratzea, gizarte hezitzailearen lanbide-nortasuna eta lanbide-funtzioak aitortuz.
3. Gizarte Hezkuntzaren izaera eta praktika profesionalari buruzko ezagutza elkarlanean eraikitzea, praktikaren ikerketaren eta analisiaren bidez.
4. Gizarte hezitzaileen lan profesionalari buruzko gogoetak modu arrazoituan komunikatzea, idatziz zein ahoz, bai eta gizarte hezitzaileak parte hartzen duten erakundeen kulturari buruzkoak ere.
5. Diziplinarteko eta erakunde arteko taldeetan lan egiteko gaitasuna.

Garapen Jasangarrirako Gaitasunak

6. Ezagutza modu kritikoan testuinguruan jartzea, tokiko eta/edo globalko gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arazoekin elkarrekiko harremanak ezarri.
7. Baliabideak modu jasangarrian erabiltzea eta ingurune naturalean eta sozialean eragin negatiboak saihestea.
8. Jasangarritasuna sustatzen duten komunitate-prozesuetan parte hartzea.
9. Jasangarritasun-balioekin lotutako printzipio etikoak aplikatzea portaera pertsonalean eta profesionalean.

Gaitasun horiek lortzeko, praktiken prozesua bost ekintzatan antolatzen da.

1. Practicumaren aurkezpena (taldekoa)
2. Hasierako formakuntza (banakakoa eta taldekoa), EHUko tutorearekin batera.
3. Praktikak zentroetan (banaka), erakundeko instruktoreak gidatuta.
4. Hausnarketarako eta jarraipenerako mintegiak (taldekoa, EHUko tutorearekin eta mintegia osatzen duten ikasle-taldearekin batera).
5. Praktiken prozesuari buruzko txostena (banakakoa).

Hurrengo orrialdeetan, ikasle bakoitzak bere praktikaldi prozesuan egin behar duen eta bere memorian sartu behar duen hasierako prestakuntzaren garapena aurkezten da. I. Practicumaren hasieran egingo den prestakuntza honen bidez, ikasleek honako hauek lortzea espero da:

- Practicumaren erakundea eta programa, zerbitzua edo proiektua Gizarte Hezkuntzaren mapa profesionalean kokatzea.
- Gizarte Hezkuntzaren lanbide ekintza bideratzen duten printzipioak eta arauak ulertzea, Kode Deontologiko Profesionalaren bidez.
- Lanbide jardunaren azterketa eta hausnarketa errazten duten tresnak ezagutzea.

Prestakuntza-jarduerak garapen jasangarrirako jasangarritasun- eta hezkuntza-irizpideak aplikatuz egingo dira.

Hasierako prestakuntza ikasleek hiru prestakuntza desberdinetan egingo duten lanaren bidez gauzatuko da. Prestakuntzak hiru mintegien bidez gauzatuko da, eta erreferentziako tutorearekin egunak adostuko. Prestakuntza bakoitzak jarduera bat izango du, eta ikasle bakoitzak dagokion jarduera prestatu beharko du mintegia baino lehen. Jarduera hori osatu, tutoreari eman eta dagokion Practicumaren memorian sartu beharko du. Mintegian, partekatu eta hausnartuko da.

1. FORMAKUNTZA	Praktikaldi erakundearen testuingurua
2. FORMAKUNTZA	Gizarte Hezkuntzaren Kode Deontologiko Profesionala
3. FORMAKUNTZA	Informazioa biltzeko tresna metodologikoak

PRACTICUMAREN I. FORMAKUNTZA

Praktikaldi erakundearen testuingurua

HELBURUA

- Praktikaldi erakundea, programa, zerbitzua edo proiektua Gizarte Hezkuntzako mapa profesionalean kokatzea.

DESKRIBAPEN OROKORRA

Practicum I.eko lehenengo formakuntza horretan, praktikaldi erakundea kokatuta dagoen testuingurua aurkeztuko da.

Jarduera mintegian parte hartu aurretik banaka prestatuko da, bertan eztabaidatu, hausnartu eta osatu ahal izateko. Jarduera etxean amaituko da eta dokumentu bakar batean idatziz aurkeztuko da. Dokumentu hori tutorearekin adostutako sistemaren bidez entregatuko da, eta Practicumaren memorian sartuko da.

PRESTAKUNTZA JARDUERAREN HASTAPENAK

Gizarte Hezkuntzako Practicuma hainbat erakundek aurrera eramaten dituzten ekintza soziohezitzaileetan kokatzen da. Ekintza soziohezitzailele hauek hirugarren sektoreko erakundeek eskaintzen dituzten hainbat programa, zerbitzu edo proiektuen bidez gauzatzen dira. Gutxitan, udaletxeek eta diputazioek eskaintzen dute, zuzenean, praktiken lan esparrua.

Gizarte eta hezkuntza testuinguruak eta esparruak hainbat lege eta administrazio esparrutan daude txertatuta, bete beharreko arauen eta administrazio publikoekin duten loturaren arabera.

Adibide gisa, gizarte-politiketarik eratorritako programak eta zerbitzuak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan sartzen dira, eta udal baten edo foru-aldundi baten gizarte-zerbitzuen arloaren mende egon daitezke.

Gizarte eta hezkuntza arloko programa baten legegintza- eta administrazio-testuingurua ezagutzea funtsezkoa da programa horren xedea indarreko politika publikoen esparruan ulertzeko.

PRESTAKUNTZA JARDUERAREN GARAPENA

Lehenengo prestakuntza garatzeko, erantzun hiru galdera hauek, bakoitzari dagokion mintegia baino lehen. Galderak erantzun ondoren, eraman itzazu prest mintegira, mintegiko kideekin partekatzeko eta osatzeko.

1. Galdera

Ze erakundeek lan egiten dute Gizarte Hezkuntzaren eremu desberdinetan? Hauek taldekatu daitezke?

Badakigu Gizarte Hezkuntzan lan egiten duten erakundeak asko direla. Graduan zehar, ziur aski, horietako batzuek egiten duten lana sakonago ezagutzeko aukera izan duzue, ikasgaietako edukien bidez, irakasgaietan bertan eta egin dituzuen lanen eta aurkezpenen bidez. Hala ere, Gizarte Hezkuntzako Practicumetik garrantzitsutzat jotzen da Practicumean kolaboratzen duten horietako batzuen lehen argazki globala izatea. Lehenengo argazki hori izateko, ezinbestekoa da ulertzea erakunde huek, oro har, nahiz eta gizarte osoari zuzenduak dauden, zaurgarritasun edo bazterkeri sozialeko egoeran dauden pertsonen zuzenduak daude.

Jarraian, Gizarte Hezkuntzan ohikoak diren eremu profesional batzuk aurkezten dizuegu. Eta honekin batera, Gizarte Hezkuntzako Practicumean maiz kolaboratzen duten erakunde batzuen zerrenda aurkezten dizugu.

Gizarte Hezkuntzaren esku-hartze edo ekintza eremuen inguruan egin daitezkeen sailkapenen artean, honako sailkapen taula hau aurkezten dizugu.

Gizarte Hezkuntzaren eskuhartze eremu posibleak

Gizarte Zerbitzuak	Sustapena Asia Anim. Soziokultur.	Hezk. Formala Okupazionala	Osasuna
Lana	Etxebizitza	Kirola	Berdintasuna
Hizkuntzak Euskara	Justizia	Jasangarritasuna	Kultura
Immigrazioa Migrazioa Dibertsitate Kulturala	Partehartze komunitarioa	Dozentzia Ikerketa Aholkularitza Eteng. Formak.	Heziketa afektibo seuxuala
Besteak (Aktibismoekin erlazionaturak: politikoa, feminista, medioambientala, hiritar aktismoa, etxebizitza eskubidea, kulturala...)			

Sailkapen hau oinarri hartuta, lehenengo galdera hau erantzun, jarraian aurkezten dugun erakundeen zerrenda (Gizarte Hezkuntzako Practicumean maiz kolaboratzen duten erakundeak) aurkeztutako eremuekin erlazionatuz. Taula osatu ondoren, ikusten duzunari buruzko interpretazio eta hausnarketa txiki bat egin. Kontuan izan entitatearen batek hainbat eremuetan lan egin dezakeela hainbat programa, zerbitzu edo proiektuen bidez.

	ENTITATEAK	EREMU POSIBLEAK
1	ASPACE	

2	AGIPAD	
3	BERRIZTU	
4	CÁRITAS	
5	CRUZ ROJA	
6	GAUTENA	
7	GUREAK	
8	NUEVO FUTURO	
9	BIZGARRI	
10	SORTZEN	
11	ZABALDUZ	
12	NURA	
13	ZE HAR	
14	EMAUS	
15	KAEBNAI	
16	AGINTZARI	
17	FUND. GOYENECHÉ	
18	CLUB DE SURF PATRIS	
19	ULERTUZ	
20	BABESTEN	
21	FUNDACIÓN SAREA	
22	IRSE-EBI	
23	LAUKA	
24	PEÑASCAL	
25	ERROAK SARTU	

2. Galdera

Kokatu dezakezu praktikaldiak egingo dituzun programa, zerbitzua edo proiektua?

Galdera erantzun baino lehen irakurri aurkeztu den azalpena.

Oro har, erakundeek hainbat programa, zerbitzua edo proiektuen bidez gauzatzen dute beren ekintza soziohehitzaila. Ziurrenik praktikak egingo dituzun erakundearen barruan, programa, zerbitzua edo proiektu jakin batean kokatuko dira.

Adibidez, praktikak Emausen (praktika erakundea edo entitatea) egitea tokatzen bazaizu, komenigarria litzateke jakitea Emausen barruan zein programa, zerbitzu edo proiektuan egingo dituzun praktikak, Emausen barruan praktikak egiteko hainbat programa, zerbitzu edo proiektu bait daude. Emausen kasuarekin jarraituz, esate baterako, praktikak Isla-Uba izeneko zentroan egingo badituzu (Isla-Uba, Emausek kudeatzen duen zentro bat da), jakin beharko zenuke, zehazki, zentro hau bazterkeria eta marjinazio arriskuan dauden pertsonentzako egoitza zentro bat dela. Gainera, zerbitzu hau zertan datzan azaldu beharko zenuke. Horrez gain, zerbitzu hori zergatik existitzen den hausnartzen ere saia zaitezke, honako galdera hauen bidez: Isla-Ubaren kasuan, zure ustez, erakundearen berezko zerbitzua da, hau da, Emausena? Edo, zure ustez, beste leku batzuetan ere badago eta beste erakunde batzuek kudeatzen dituzte? Zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa den dirua, nondik ateratzen da? Emausetik? Edota beste leku batetik?

Azalpen hau ulertu ondoren orain, praktikak egingo dituzun programa, zerbitzu edo proiektuari buruz hausnartu. Horretarako, adibidean erabilitako galdera berberak gida moduan erabili.

Zure praktikaldiari buruzko hausnarketa egin ondoren, azaldu labur-labur zein eremutan kokatzen den eta zein den zure praktikak egingo dituzun programa, zerbitzu edo proiektuaren

helburua. Erraza da azaltzea; izan ere, ziurrenik webgunean, edo praktikak erakundean bertan hasi badituzu, informazio hori lor dezakezu.

Lehenengo zati hau amaitzeko, kokatu zure praktikak. Oro har, praktikak lau kasuistika desberdinetan koka daitezke.

1. Kasuistika	Gipuzkoako udalerrietako udalek sustatzen dituzten programa, zerbitzu edo proiektuen barruan, udalek diruz lagunduta, lizitazio kontratu baten pean.
2. Kasuistika	Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen dituen programa, zerbitzu edo proiektuen barruan, aldundiak berak diruz lagunduta, lizitazio-kontratu baten pean.
3. Kasuistika	Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen programa, zerbitzu edo proiektuen barruan, Eusko Jaurlaritzak berak diruz lagunduta, lizitazio-kontratu baten pean.
4. Kasuistika	Erakundeak zuzenean kudeatutako eta funts propioen edo udalen edo aldundiaren laguntzen bidez diruz lagundutako ekimen propio baten barruan.

Zure praktikaldiaren programa, zerbitzu edo proiektua, zure ustez, lau testuinguru horietakoren batean kokatu daiteke? Praktikaldiaren erakundeak kudeatzen duen programa, zerbitzu edo proiektua udalaren menpe egon daiteke? Aldundiaren menpe egon daiteke? Eusko Jaurlaritzaren menpe egon daiteke? Edo erakundearen mende egon daiteke zuzenean?

Udalean, Gipuzkoako Foru Aldundian edota Eusko Jaurlaritzan dagoen programa, zerbitzu edo proiektu batean kokatzen bada, zure ustez zein sail, arlo edo ataletan koka daiteke?

Galdera honi erantzuten saia zaitezten, adibide gisa, Donostiako Udala, orokorrean nola antolatzen den beheko taulan aurkezten da. Bertan ikusten da, nola udaletxearen lana eremu ekintza desberdinetan eta eremu bakoitza sail desberdinetan.

DONOSTIAKO UDALETXEA	
EKINTZA EREMUA	ATALA
Hiriko mantenimendua eta zerbitzuak	...
Mugikortasuna	...
Ingurumena	
Euskara	...
Pertsonen kudeaketa	...
Udaltzaingoa	...
Proiektuak eta obrak	...
Hiri zerbitzuen mantenimendua	...
Hirigintza	...
Gizarte-Ekintza	- Ekintza komunitarioko zerbitzua - Prebentzio, haur eta familia zerbitzua - Adinekoen eta desgaituen zerbitzua - Gizarteratzeko zerbitzua
Hezkuntza eta gizarte sustapeneko zerbitzua	- Gazteria eta aterpetxeen atala - Berdintasunaren, lankidetzaren, giza eskubideen eta kultura-aniztasunaren atala - Hezkuntza Saila
Bestelako arloak	...
Kirolaren Udal Patronatua (Erakunde Autonomoa)	...

Udalaren Musika eta Dantza Eskola (Erakunde Autonomoa)	...
---	-----

****Hurrengo koadroan zure praktikak non kokatu pentsatzen lagunduko dizun informazio osagarria erakusten da.***

Info Donostia:	https://www.donostia.eus/info/ayuntamiento/ayto_dptos.nsf/fwHome?ReadForm&idioma=cas&id=C407816377547
GFaren departamentuak	https://www.gipuzkoa.eus/es/diputacion
GFAk, zehazki, Gizarte Politiken Departamentuak eskaintzen dituen zerbitzuak	https://www.gipuzkoa.eus/es/web/gizartepolitika/conoce-el-departamento

Azkenik, uste duzu legeren baten babespean kokatzen dela praktikak egingo dituzun programa, zerbitzua edo proiektua?

3. Galdera

Praktikak egingo dituzun programa, zerbitzu edo proiektua, nola harremantzen da beste programa eta esku-hartze eremuekin?

Ia ziur, praktikaldiaren entitateak eta kudeatzen duen zerbitzuak edo programak harremanak izango dituela beste eremuetan lan egiten duten entitate edota erakundeekin. Pertsonekin lan egitean, oro har, ikuspegi sistemiko baten barruan lan egiten da eta sistema hau ezagutzea beharrezkoa da.

Uste duzu zure praktiketan, aurrera eramaten den ekintza soziohezitzailea ikuspegi sistemiko hori izan dezakeela? Zergatik? Zure ustez, zein eremu desberdinekin izan dezake harremana?

Adibide bezala, ikastetxe batek haur batekin egiten duen lana testuinguru baten barruan kokatzen da, non eremu desberdin batzuek batera lan egiten dute (Gizarte Ongizatea, Osasuna, Justizia, Kirola...), hezkuntza integrala eskaini ahal izateko.

4. Galdera

Zure ustez, nola laguntzen du edo lagundu dezake zure praktiketan egiten den gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak gizarte-, ekonomia- edo ingurumen-garapen jasangarrian?

Gizarte- eta hezkuntza-testuinguruen konplexutasunak eta aberastasunak bat egiten dute Garapen Iraunkorraren printzipioekin, batez ere kontzeptu hori bere funtsezko hiru dimentsioetan ulertzen badugu: soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa. Gizarte Hezkuntzak, ekitatearekin, inklusioarekin eta bizi-kalitatea hobetzearekin konprometitutako lanbidea den aldetik, eginkizun aktiboa du gizarte bidezkoago eta jasangarriago baten sustapenean. Hala, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen helburua ez da soilik berehalako arazoak konpontzea. Honetaz gain pertsonak ahaldundutzea du helburu, hauek beren komunitateetan aldaketa-eragile izan daitezen, parte-hartzea, erantzunkidetasuna eta ingurunearekiko errespetua bezalako balioak sustatuz.

Ikuspuntu horretatik, hezkuntza-ekintzak esku-hartze indibidualetik harago joan behar du, eta gizarte testuinguruak eta egiturak eraldatzera bideratu behar du, Agenda 2030eko Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzen laguntzeko.

Praktikak egiten dituzun gizarte eta hezkuntza testuingurua aztertu du, eta garapen iraunkorrari egiten dizkieten ekarpenak identifikatu itzazu.

PRACTICUMAREN II. FORMAKUNTZA

Gizarte Hezkuntzaren Kode Deontologiko Profesionala

HELBURUA

- Gizarte Hezkuntzaren lanbide ekintza bideratzen duten printzipioak eta arauak ulertzea, Kode Deontologiko Profesionalaren bidez.

DESKRIBAPEN OROKORRA

Bigarren prestakuntza honetan, deontologia profesionalak Gizarte Hezkuntzan duen garrantziaz hausnartuko da. I. Practicumean zehar deontologia profesionala erabil daitekeen egoerak ere aurreikusiko dira.

Jarduera banaka prestatuko da mintegian parte hartu aurretik, bertan eztabaidatu, hausnartu eta osatu ahal izateko. Jarduera etxean amaituko da eta dokumentu bakar batean idatziz aurkeztuko da. Dokumentu hori tutorearekin adostutako sistemaren bidez entregatuko da, eta Practicumaren memorian sartuko da.

PRESTAKUNTZA JARDUERAREN HASTAPENAK

Gizarte Hezkuntzako graduari zehar, lanbide honen deontologiari erreferentzia egiten zaion aldiak desberdinak dira. Adibidez, Gradua bera aurkeztean, Practicuma aurkeztean, edo zeharka, irakasgai batzuetan.

Gizarte Hezkuntzaren Kode Deontologiko Profesionalaren jatorriari dagokionez, 1996ra jo behar da, bertan agerian geratzen baita lanbide berri baten deontologia arautzearen garrantzia; izan ere, lanbideak bere Kode Deontologiko Profesionala eskatzen zuen, Gizarte Hezkuntzako profesionalek aurre egin behar zieten gatazkak eta dilema etikoak bideratzeko.

Premia horretatik eta ekimen pertsonal eta kolektiboetatik abiatuta, jardunaldi, mintegi eta lantaldeen bidez, 2001ean, Gizarte Hezkuntza lanbide horretarako Kode Deontologiko bat sortzeko oinarriak finkatu ziren. Kode hori 2003an amaituko da, Estatuko Gizarte Hezitzaileen Elkartearen (ASEDES) eta Estatuko Gizarte Hezitzaileen Elkargo Orokorraren eskutik.

Kode Deontologiko Profesionala dokumentu baten bidez gauzatzen da, non hezkuntzako gizarte jarduketako eremu guztietan aplikatu daitezkeen hamaika printzipio orokor islatzen diren. Gainera, hainbat arau deontologiko aipatzen dira, bost esku-hartze eremutatik abiatuta. Gizarte Hezitzaileari eta bere lanbideari, erabiltzaileei eta haien familiei, lan-taldeari, kontratatzen den erakundeari eta gizarteari oro har buruzko arauak.

Kode Deontologiko Profesionala, [ASEDEsek 2007an egindako dokumentu profesionalizatzailean kontsulta daiteke](#). Dokumentu horrek erreferentzia gisa balio du lanbide profesionalak estatu osoan lan egiteko, eta lanbide honen lanbide-ekintza bideratzen duten printzipioak eta arauak ezartzen ditu.

PRESTAKUNTZA JARDUERAREN GARAPENA

Bigarren prestakuntza hau garatzeko, hurrengo bi ataletan planteatutako galderei erantzun. Erantzun ondoren, eraman itzazu prest mintegira, gainerako taldekideekin partekatze eta osatu ahal izateko.

1. Galdera

Gizarte Hezkuntzako Kode Deontologiko Profesionalaren sarrera

Dokumenturik berrikusi aurretik, gogoeta egiteko eta, zure ezagutzan eta esperientzian oinarrituta, gai hauek laburki azaltzeko eskatzen dizugu.

- Zer da Gizarte Hezkuntzako Kode Deontologiko Profesionala?
- Zertarako balio du?
- Zure ustez, zergatik sortzen da Kode Deontologiko Profesional hau?

Deontologiarako lehen hurbilketa denez, garrantzitsua da gai horri erantzuteko bilaketarik ez egitea. Jakin ezean, adierazi dezakezu.

2. Galdera

Kode Deontologiko Profesionala praktiken testuinguruan aplikatzea

Orain, Gizarte Hezkuntzako Erakundearen Estatuko Elkartek aurkeztutako dokumentua (ASEDES, 2004, 19-32 orr.) eta beharrezkotzat jotzen dituzun beste iturri batzuk kontuan hartuta, hurrengo bost galdera hauei erantzun.

<http://www.eduso.net/wp-content/uploads/2019/11/Profesionalizaziorako-Dokumentuak-GH.pdf>

1. Etika, moralak, etika profesionala eta deontologia profesionala ulertu eta definitu.
2. Azaldu zer den Gizarte Hezkuntzaren Kode Deontologiko Profesionala, eta zer nabarmenduko zenukeen kode horretan.
3. Beharrezkotzat jotzen duzu Kode Deontologiko Profesionala zure praktika zentroan egiten den lana garatzeko? Arrazoitu zure erantzuna.
4. Zer alde dago printzipio orientatzaileen eta arau deontologikoaren artean?
5. Pentsa dezakezu
6. Kode deontologikoaren garrantzia justifikatzen duen zure praktikan eman daitekeen adibide bat eman dezakezu? Eman ostean, identifikatu adibidearen printzipio orientatzailea eta harekin lotuta dauden arau deontologikoa identifikatu.
7. Zure ustez, Gizarte Hezkuntzako deontologia profesionalaren printzipioek laguntzen al dute garapen jasagarriaren helburuak lortzen? Nola?
8. Nola txertatu daiteke garapen iraunkorra gizarte-hezitzaileen eguneroko praktika deontologikoan?

NIRE PRAKTIKETAN DEONTOLOGIA PROFESIONALA ERABILI BEHAR DEN ADIBIDE BAT	
Dilema edo arazo etikoaren adibidea	...
Printzipio orientatzailea	...
Erlazionatutako arau deontologikoak	...

PRACTICUMAREN HIRUGARREN FORMAKUNTZA

Informazioa biltzeko tresna metodologikoak

HELBURUA

- Praktika profesionalaren azterketa eta hausnarketa errazten duten tresnak ezagutzea.

DESKRIBAPEN OROKORRA

Hirugarren prestakuntza honetan, behaketa sistematikoa eta gogoeta egunkaria aurkeztuko dira, ekintza soziohezitzaileen testuinguruak eta praktikak aztertzeko eta hausnartzeko funtsezko teknikak eta tresna gisa.

Prestakuntza mintegian zuzenean egingo da, beraz, ikasleak ez du jarduerarik prestatu behar aldezturik. Prestakuntzaren emangarriak bi zati izango ditu. Alde batetik, mintegian bertan egiten den jarduera tutoreari emango zaio, bertan adostutako sistemaren bidez. Eta, bestetik, landutako teknikak eta tresnak Practicumaren Memoriaren garapenean erabiliko dira.

PRESTAKUNTZA JARDUERAREN HASTAPENAK

I. Practicumaren helburua da ikaslea testuinguru soziohezitzaile jakin batera hurbiltzea, graduaren lortutako ezagutza eta praktika profesionalaren arteko erlazioak ezartzen laguntzeko. Era berean, helburua da praktika hori eredu eta erreferentzia izatea, ikaslea bere lanbide lanari dagozkion harreman eta komunikazio trebetasunak garatzen has dadin.

Egoera honetan, ikasleek praktika profesionalaren Gizarte Hezkuntzako testuinguruaren eta prozesuaren ondoriozko informazioa behatu, bildu eta erregistratuko dute, ondoren aztertu eta hausnartzeko. Horretarako, ezinbestekoa da ikasleak behar bezala planifikatzea zer behatuko duen eta nola bilduko duen praktikatik sortutako informazio guztia. Behaketan eta behaketa sistematikoaren fitxan, garapen iraunkorra sustatzera bideratutako programaren zereginak, ekintzak edo funtzioak biltzen dituen kategoria bat gehituko da.

Horrela, hirugarren prestakuntza honetan behaketaren teknika eta egunkariaren tresna landuko dira. Hauek praktiken testuinguruari buruzko informazioa biltzea ahalbidetuko dute, ondoren azterketa eta hausnarketa egiteko.

PRESTAKUNTZA JARDUERAREN GARAPENA

Hirugarren prestakuntza hau garatzeko, prestakuntza honen PPT azalpena kontsultatu beharko da mintegian parte hartu aurretik. Oraingo honetan, prestakuntza honen edukia mintegian bertan zuzenean landuko da. Mintegiaren azalpenetik abiatuta, praktiken egunerokoa eta behaketa sistematiko fitxa jaso eta Practicumaren Memorian sartu.